



Save the Children

# ERANSKINA: EUSKADI

## SEXU-(DES)INFORMAZIOA: PORNOGRAFIA ETA NERABEZAROA

ekaina /2020

**Argitalpen hau aurretiazko hiru ikerketa hauetan oinarrituta egin da: Laura Barroso (Proiektuaren koordinazioa, hezkuntza afektibo eta sexualari buruzko ikerketa eta dagoen literaturaren bilketa eta berrikuspena); TANGENTE Grupo Cooperativo (Pornografiaren kontsumoari, ohitura kaltegarriari eta nerabeek egiten duten sareen erabilerari buruzko inkesta adierazgarri batean oinarritutako azterketa kuantitatiboa); eta DINAMIA Gizarte Aholkularitza (Azterketa kualitatiboa. Pornografiaren kontsumoa, ohitura kaltegarriak eta sareen erabilera nerabeen artean).**

### **Esker onez:**

Ikerketa honetan parte hartu duten 1.753 nerabeei. Beren esperientziak, kezkek eta beharrak partekatu izan ez balituzte, ezinezkoa izango litzateke txosten hau egitea. Amei, aitei eta ikastetxeei, emandako laguntzarengatik eta beren atea irekitzeagatik. Elkarrizketetan beren denbora eta jakintza eskaini dizkiguten profesionalei.

Laura Barrosori, proiektu honetara bere ilusio eta ahalegin guztia zuzentzeagatik. Clara Burriel, Michelle Quintero eta Consuelo Martíni, ikertzen jarraitzeko erakutsitako gogo eta jarreragatik. Paloma Garcíari, txosten honi atxikitako gida bikainagatik. Javier Cabrera, Lucía Martínez, Emilie Rivas, Sara Polo eta Yohara Quilezi, eranskinak aurrera ateratzeko egindako ahaleginagatik. Carmela del Moral eta Catalina Perazzori, baldintzarik gabe gidatu eta laguntzeagatik.

Hautzaroari eta Sentiberatzeari buruzko Politiken Zuzendaritza:

**Catalina Perazzo**

Save the Children Euskadiko zuzendaria:

**Charo Arranz**

Koordinatzailea:

**Carmela del Moral**

Egileak:

**Cristina Sanjuán**

**Sara Polo**

Argazkiak:

**Germán Gullón (Valbhy Design)**

**Óscar Naranjo**

Maketazioa:

**Óscar Naranjo**

**Elena del Real**

Argitaratzailea:

**Save the Children España**

**Ekaina\_2020**



# AURKIBIDEA

<b>4</b>	<b>Sarrera</b>
<b>5</b>	<b>Nerabezaroa</b>
<b>10</b>	<b>Datuak</b>
<b>28</b>	<b>Ondorioak</b>
<b>29</b>	<b>Gomendioak</b>
<b>34</b>	<b>Bibliografia</b>

# SARRERA

Save the Childrenen uste dugu, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko eta haien ongizatea bermatzeko, beharrezkoa dela haien errealitatea ulertzea: zer gertatzen zaien, zer behar duten eta **zer nahi duten. Horregatik, txosten hau prestatu dugu, nerabezaroaren berezko arazoak jorratzen dituen erakundearen lehenengoa, generoaren zeharkako ikuspegitik eta aniztasunetik abiatuta.**

Erabat teknologikoa den mundu batean, oraindik ere desorekak eta genero-indarkeriak nagusi diren mundu batean, non hezkuntza afektiboa eta sexuala ez diren beti etxean eta eskolan behar bezala lantzen, **Internet bihurtzen da sexualitatearen irakasle eta kontsultategi, eta harekin batera, pornografia.**

**Nerabezaroa bizitzako etapa konplexu bat da**, eta etapa horretan amaitzen da norberaren nortasunaren eraikuntza, sexualitatea barne. Bide horretan, ingurune digitala errealitatearen beste eremu bat da.

Teknologiak ez du pornografia sortu, baina eskuragarriago egin du. **«Pornografia berri»** irisgarri, mugagabe (bai edukian, bai praktika motetan), anonimo eta interaktiboaren gorakada<sup>1</sup> nerabearen sexualitatearen beste zati bat da, eragina du haren harremanetan, eta jokabide arriskutsu edo kaltegarriak ekar ditzake.

Argitalpen hau idazterakoan, ohiz kanpoko eta ezusteko egoera bat sortu zaigu, askorentzat gogorra izan den egoera bat. COVID-19ak eragindako osasun-krisiak eta konfinamenduak ondorio asko ekarri dituzte, eta ekarriko dituzte luzera ere.

Besteak beste, Interneten eta sare sozialen erabilera areagotzea eta, beraz, gailuekin konektatuta denbora gehiago pasatzea; bai nerabeek eta bai helduek material pornografiko gehiago kontsumitzea eragin dezake horrek berak. Kontuan hartu behar da, horrez gain, ez dela amaitu osasun-krisia, eta, beraz, egoera beste zenbait hilabetez luza daiteke.

Aspaldidanik ari da gai hori esparru akademikoaren arreta erakartzen, eta, gaur egungo egoeran, garrantzi berezia hartu du; hala, gero eta gehiago dira sexu-heziketari, nerabezaroari eta sexualitateari buruzko azterlanak eta ikerketak. Testuinguru horretan, gogoeta bat merezi duten zalantza asko agertzen dira:

**Nerabeek pornografia** kontsumitzen dute? **Erreferentzia** moduan hartzen dute beren harremanetan? Ikusten dutena **gustatzen zaie?** Pornografian **indarkeria edo desoreka** dagoela pentsatzen dute? **Zergatik** bilatzen dute? Nola aurkitzen dute? Nola daude ordezkaturik LGTBI pertsonak? Nola islatzen dira genero-errealitateak? Nahikoa da haientzat jasotzen duten **hezkuntza afektiboa eta sexuala?** Gehiago jakin behar dutela uste dute?

Horiek dira **Save the Childrenen egin ditugun galderak**, haur eta nerabeen ongizatea eta garapen integrala bermatzen laguntzeko asmoz, errealitatera egokitzen diren proposamenen bidez, taburik gabe.

Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da nerabeak **aurrez ez epaitzea eta ez gutxiestea**. Horregatik, zuzenean galdetu diegu, bi metodoren bidez: (i) azterlan kuantitatibo bat, estatuko ikastetxeetako **13 eta 17 urte bitarteko 1.680 ikasleri egindako**

1 Ballester J. & Orte C., 2019.

inkestekin; (ii) azterketa kualitatibo bat, **14 eta 18 urte bitarteko pertsonekin egin-**

**dako 11 lantegirekin<sup>2</sup>, eta Euskadirako emaitza espezifikoekin<sup>3</sup>.**

# NERABEZAROA

## Nerabezaroa, bizitzako etapa erabakigarria

OMEren<sup>4</sup> larabera, nerabezaroa «haurtzaroren ondoren eta helduaroaren aurretik, 10 urtetik 19 urtera bitartean, gertatzen den giza hazkuntza eta garapen-aldia da. Gizakiaren bizitzako trantsizio-etapa garrantzitsuenetako bat da, hazkunde- eta aldaketa-erritmo azkarrak dituena, eta bu-larreko haurrek bizitzen dutenak soilik gain-ditzen du.»

Alde horretatik, Haurren Eskubideen Batzordeak<sup>5</sup> estatuei dei egiten die begirada nerabezaroan jar dezaten, haien eskubideak sustatzeko eta haurtzarotik helduorako trantsizioan izan ditzaketen arazoak gainditzen laguntzeko, gero eta konplexuagoa den mundu honetan. Horrela, etapa berezitzat deskribatzen du, erabakigarria izango delako nerabeek bizitzan izango dituzten auke-aren aurrean. Erakundeak argi esaten du lehen haurtzaroko esperientzia positiboak funtsezkoak direla nerabeen garapenerako, baina nerabezaroa ere funtsezkoa dela helduen bizitzarako. Azken batean, beharrezkoa dela nerabezaroan inbertitzea eta esku hartzea.

Nerabeek bizitzarekiko eta etorkizunarekiko dituzten itxaropenak eta helduek nerabezaroarekiko dituzten itxaropenak benetan handiak dira. Nerabezarotik asko espero dugu, eta helburu hori betetzea zeregin zaila da berez.

Bizitzaren etapa hori norberaren izatearen esplorazio bat da, eta **aldaketa asko gertatzen dira, helduaroaren bezpera direnak**. Nortasun propio baten<sup>6</sup> bilaketak eta eraikuntzak zehazten du, saiakeran eta errakuntzan oinarrituta. Gainera, aldi horretan, faktore indibidualek ez ezik, faktore sozialek, kulturelek eta ekonomikoek ere eragiten dute. Horretan guztian, funtsezko zati bat **gorputza eta gorputzean gertatzen diren** aldaketak dira. Gorputzaren azterketa horrek gizarteak barneratutako genero-aginduei erantzuten die.

Zenbait faktorek, hala nola desorekak edo diskriminazioak, dimentsio handiagoa har dezakete nerabezaroan. Berrito ere, Batzordearen arabera, desorekak eta este-reotipoen finkatzeak bereziki eragiten diete

2 Inkesta modu presentzialean egin da estatuko ikastetxeetan, modu telematikoan. Alderdi kualitatiboari dagokionez, eztabaida-taldeen gain, elkarrizketak egin zaizkie esku-hartzearen eta ikerketaren eremuko profesionali.

3 Konfiantza maila berbera da aztertutako erkidego guztietarako (% 95), baita heterogeneotasun-baldintzak ere (p=Q=% 50). Laginaren errorea lurralde bakoitzean lortutako laginen tamainaren arabera aldatzen da. Euskadiren kasuan, (n=267) 6,12koa da.

4 Osasunaren Mundu Erakundea.

5 Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideen Batzordea, 2016.

6 Martínez Benlloch & Et al., 2008.

nerabeei; genero-arauek eta maskulinitasun tradizionalak mutilen eskubideak mugatzen dituzte. Bestalde, diskriminazioa, estigmatizazioa, informazio falta eta familiaren nahiz gizartearen aldeko laguntzarik eza errealitate bat da nerabe gay, lesbiana, trans, bisexual eta intersexualentzat<sup>7</sup>.

Hori guztia **pertsona helduek** nerabearoaren inguruan duten pertzepzioarekin nahasten da. Batzuetan, **aurreiritzik** begiratzen diegu nerabeei, helduon balioen eskematik. Beste batzuetan, besterik gabe, **ez ditugu ezagutzen** nerabeak dituzten nahiak eta kezak.

## Mundu birtuala, nerabeen bizitzako zati bat

Indarkeria biralal<sup>8</sup> txostenean aztertutakoa gogora ekarrita, ezin ditugu gaur egungo gizarte-harremanak ulertu Internetik gabe, eta gauza bera gertatzen da nerabeen kasuan ere. Jada helduaroan sartu diren pertsonak ez bezala, **gaur egungo nerabeak aro digitallean jaio dira**. Interneten erabilerari buruzko azken datuen arabera, Euskadin, 10 urtetik 15 urtera bitarteko haurren % 95,8k erabiltzen du Internet, estatuan baino ia 3 puntu gehiago (% 92,9); 16 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen artean, % 99,1era iristen da ehuneko hori<sup>9</sup>. Hala ere, ezin dugu ahaztu faktore sozioekonomiko garrantzitsu bat dagoela: haur eta nerabe ahulenei eragiten dien **arrakala digitala**. **Euskadin, haurrak eta nerabeak bizi diren 10 etxetatik 1ek ez du ordenagailurik edo Internetik, edo bietako bakar bat ere ez**. Gabezia hori familia ahulenetan kontzentratzen da: **benetako pobrezian bizi diren etxeen heren batek ia ez du ez ordenagailurik ez Internetik**, eta 5etik

batek ordenagailua du, baina Internetik ez, edo alderantziz<sup>10</sup>.

Ongizaterik ez duten familiek ere gainerakoek baino neurri handiagoan pairatzen dute arrakala digital hori; % 12,1ek ez du ez ordenagailurik ez Internetik, eta 10etik 1ek bietako bat baino ez du, eta bestea ez.

HIKTak<sup>11</sup> bizitzaren zati dira, eta jada ez da bereizketarik egiten «errealaren» eta birtualaren artean. Baina ingurune digitalak berezko ezaugarriak ere baditu; hauek dira ezaugarri nagusiak: **interkonexioa, azkartasuna eta berehalakotasuna**<sup>12</sup>, **eta, askotan, anonimotasuna**<sup>13</sup>. Gainera, komunitate txikiak nahiz makrokomunitate globala hartzen dute barnean<sup>14</sup>, eta horrek kontzientzia eta talde jakin bateko edo batzuetako kide izatearen sentimendua pizten du.

Ingurune digitala gizarte-eraikuntzako espazio bat da, eta gero eta zentralagoa da gure

7 Haurren Eskubideen Batzordea, 2016.

8 Save the Children España, 2019.

9 INE, 2019.

10 EPDS, 2016.

11 Teknologiak gure bizitzetan erabat murgilduta daude, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) kontzeptua zaharkituta gelditu da; horren ordez, Harremanen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (HIKT) izendapena erabiltzen da.

12 Castells, 2009.

13 Linares, 2019.

14 Zafra, 2010.

bizitzetan; nerabeen kasuan, identitatearen eta sexualitatearen kontzientziaren garapena dakar horrek, non aldaketa fisikoak eta psikologikoak ere proiektatzen diren.

Inguru digitala onuraz beteta dago, hala nola oso urrun dauden pertsonekin konektatzea, azkar eta erraz informatzea, musika entzutea edo bideoak berehalakoan ikustea. Hala ere, Internet munduaren isla da. Garatzen den gizartean genero-desberdintasuna nagusi bada, Internetek genero-estereotipoak eta -rolei, homofobiari, transfobiari eta abarri ere erantzungo die.

Testuinguru horretan sortzen dira sexu-ohitura jakin batzuk, hala nola sextinga (material sexuala bidaltzea baimentzea), baina horrekin lotutako arriskuak ere sortzen dira, hala nola baimenik gabeko sextinga (eduki sexuala jasotzen duen pertsonak bidaltzailearen baimenik gabe bidaltzen du).

## Nerabezaroa eta sexualitatea

**Sexualitatea pertsona guztiei dago-kien dimentsioa da**, eta pertsona bakoitzak bere sexua bizitzeko duen modu bakar eta errepikaezina definitzen du, hau da, bere gorputza, generoa, desira, ohiturak, genitalak, bikotekidea edo bikotekideak eta abar. Sexualitatea genitalen edo haiekin egiten diren praktiken sinonimoa dela pentsatzen da, eta uste okerra da hori; beraz, zati bat hartzen da osotasunaren ordean.

Horrela, **sexualitateaz ari garenean aniztasunaz ari gara, izateko moduez, adierazteko moduez eta harremanak izateko moduez**. Pertsona guztiek garapen sexual orokorreko etapa bat igarotzen dute, eta askotarikoa izan daiteke eta hainbat abiadura izan ditzake<sup>16</sup>.

Horrekin lotuta, mutilek eskatzen dituzte gehien horrelako edukiak, eta neskek bidaltzen dituzte gehien; horregatik, neskek pairatzen dute gaitzespen handiena edo jasaten dituzte ondorio negatibo handienak. Parte hartu zuten **LGTBI pertsonak** zioten zigor sozial hori ez dela pertsona heterosexualen kasuan bezain ohikoa.

(...) «Ikasgelan sartzen garenean, mugikorra uzten dugu, eta, irteeran, mugikorra eskuan dugula egoten gara, mugikorrarekin joaten gara komunera... sare sozialetan ere mugikorrarekin ibiltzen gara». (...)

Neska nerabea<sup>15</sup>

Gaur egun, ezin dugu nerabeen sexualitateaz hitz egin teknologia kontuan hartu gabe. Nerabezaroari eta Interneten eta sareen erabilerari buruzko ikerketak funtsezkoak dira sexualitate hori nola eta non garatzen den ulertzeko.

Era berean, ezin dugu pornografia prozesu horretatik bereizi. **Nerabe gehienek pornografia kontsumitzen dute, eta maitasun handiz, batzuetan**. Eduki horiek eragin nabarmena dute haien garapenean eta haien arteko harremanak bizitzeko moduan. Teknologien erabilera oso zabaldua dagoela kontuan hartzen badugu, mugikorraren bereziki, pornografia trukitzea inoiz baino errazagoa da.

15 Eranskin honetan txertatutako aipua estatuan egindako azterketa kualitatiboari dagozkio, eta, beraz, ez dira berariaz Euskadirekin lotzen. Hala ere, interesgarria iruditu zaigu azterlanean parte hartu duten nerabeen eta profesionalen taldeen ahotsak txertatzea.

16 Save the Children España, 2017.

Horregatik, **teknologia horiek modu egokian erabiltzeko behar beste informazio eta tresna eman behar zaizkie**. Hezkuntza afektiboa eta sexuala eta Interneten erabilera segurua eta arduratsua sustatu gabe, arrisku-egoerak eta jokabideak areagotu egiten dira. Adibidez, sexu-transmisiozko gaixotasunak edo nahi gabeko haurdunaldiak eragin ditzakeen babesik gabeko sexua, edo Internet bidez pertsona ezezagunekin harremanetan jartzea, sexu-abusua ekar dezakeena (*online groominga*).

OMEren arabera, **informazioa eskuratzeko oso faktore garrantzitsua da**; izan ere, nerabeek ez dituzte pertsona helduek dituzten tresna berak osasunarekin eta sexu-harremanekin lotuta hartzen dituzten erabakien ondorioak balioesteko.

Hala ere, OMEren arabera, nerabeei ez zaie helduei ematen zaien sexu- eta ugalketa-osasuneko legeria eta zerbitzuak eskuratzeko aukera bera ematen. Aukera hori ematen zaienean, gerta daiteke aukera hori emateko ardura duen pertsonak errezeloa izatea sexualki aktiboa den nerabeekiko, eta hori ere oztopo bat da<sup>17</sup>.

Era berean, beste faktore batzuk ere garrantzitsuak dira praktika arriskutsuak (ez soilik sexualak) egiteko orduan. Helduarora hurbildu ahala (15 urtetik aurrera batez ere), nerabeek gutxiago hautematen dituzte arriskuak eta epe luzeko ondorioak, eta ahulagoak dira parekoen presioarekiko adin txikiagoko pertsonak baino<sup>18</sup>. Faktore horiek ere aintzat hartu behar dira nerabezaroaren ongizaterako onena zer den ebaluatzeko orduan, eta, beraz, zer adinetan eta zer heldutasun-unetan dagoen kontuan hartu behar da.

**Inguruneak eragina du** nerabezaroaren garapenean eta nerabeen sexualitatearen garapenean. Parekoen taldea, familia, komunitatea eta abar oso faktore garrantzitsuak izango dira sexualitatea bizitzeko garaian, eta, horren ondorioz, pornografia eskuratzeko eta kontsumitzeko garaian.

**Generoak** markatzen du sexualitatea. Faktore hauek guztiek baldintzatzen dute mutil eta neska nerabeen garapen sexuala: sexualitatearen eta gizontasunaren proba nerabeentzat; neska nerabeek mutilen gogoia betetzeko duten kezka; nesken kosifikazioa eta hipersexualizazioa; desorekan eta heteronormatibitatean oinarritutako sexualitatea eta pornografia, etab.

Gizarteak aurrerakada handia izan du. Pertsonak gero eta askatasun handiagoz bizi ditzakete beren ideiak, generoa, sexualitatea, erlijioa eta abar, baina askatasun hori, besteak beste, oraindik errotuta dagoen errealitate batekin batera gertatzen da.

Hala, bada, gizarte-sistema *heteronormatiboa*<sup>19</sup> ezin da azterketa honetatik kanpo gelditu. Sistema horrek maskulinitate heterosexual tradizionalagoa hartzen du arautzat eta, beraz, eredutzat. Maskulinitate nagusi hori beste aldagai batzuetan oinarrituta erakitzen da, hala nola jatorri etnikoan eta gizarte-klasean, eta izan nahi den *feminitateari kontrajarrita*. Arau gisa hartzen eta interpretatzen diren maskulinitate eta feminitate horiek beste feminitate eta maskulinitate mota batzuk onartzeko baremo gisa balio dute<sup>20</sup>. Eredu *normalizatu* horretatik aldentzen diren pertsonak zigor soziala jasan dezakete; hau da, jokabide intolerante edo bortitzen biktima izan daitezke (adibidez, homofobia)<sup>21</sup>.

17 Osasunaren Mundu Erakundea.

18 Cabrera Martín, y otros, 2012.

19 Rubin, 1975.

20 Connell, 2005. Bigarren edizioa.

21 Linares, 2019.



Eta hori da, hain zuzen ere, hainbat indarkeria-modu (adibidez, genero-indarkeria, ziberjazarpena, diskriminazioa, etab.) nahiz **indarkerian, desorekan** eta gure errealitatearekiko desberdina denarekiko **errespeturik ezan** oinarritutako harremanak gertatzeko **haztegia**, hezkuntzarik eta aldaketa kulturalik gabe gertatzen dena.

Faktore horiek guztiak bai ingurune analogikoan eta bai digitalean gertatzen dira; azken horretan, hala ere, dena ez da negatiboa. Internetek atea ireki dio **emakumeen ahalduntzeari**<sup>22</sup>, eta **LGTBI kolektiboek**<sup>23</sup>

ere tresna hori erabiltzen dute, adibidez, beren sexu-orientazio bereko beste pertsona batzuekin harremanak ezartzeko, edo trans pertsonak beste trans batzuekin harremanak izateko, bai eta beren kezkak aniztasun eta askatasun handiagoz ebazteko ere

(...) «Nerabeak, gainerako pertsonak bezala, desiratzen duten pertsonak direla ukatzen da».  
(...)

**Aitua, esku-hartzearen arlokoa**

---

22 Connell, 2005. Bigarren edizioa.

23 Linares, 2019.

# LOS DATOS

Ondoren erakutsiko ditugun datuekin, nerabezaroko errealitate desberdinak ikusarazi nahi ditugu Save the Childrenen, kontuan hartuta pertsona bakoitzak generoa, nortasuna eta sexualitatea hainbat modutara bizi dituela. Generoa adierazteko edo bizitzeko modua bakarra eta pertsonala da, eta hainbat aldagai hartzen ditu barnean, hala nola genero-identitatea, genero-adierazpena, sexu biologikoa eta sexu-orientazioa. Horren guztiaren ondorioz, askotariko errealitateak daude, eta, beraz, nerabe bakoitzak arazo espezifikoak bizi ditu.

Azterketan, ezin izan ditugu aldagai horiek guztiak aztertu, baina zenbait emaitza eta joera ondorioztatu ahal izan ditugu, bi irizpidetatik abiatuta: sexu-orientazioa (homosexuala, bisexuala eta heterosexuala) eta genero-identitatea (bitarra, neska-mutila eta ez-bitarra).

Ezin izan dira beti atera estatistikoki adierazgarriak diren datuak, baina uste dugu funtsezkoa dela garrantzitsuak direnak islatzea. Talde horiek ikusaraztea da zer behar duten eta zer nahi duten ulertzeko nahiz politika publiko koherenteak egiteko modu bakarra.

Inkestan lortutako emaitzetatik abiatuta, **Euskadiko nerabeen datuak** atera ditugu, lurraldean dauden joerak ezagutzeko asmoz. Hala, ondoren erakusten diren **datuak garrantzitsuenak dira**.

Gure asmoa ez da etiketatzea, baizik eta haur eta nerabe guztien eskubideak babestea. Ea iristen den inolako diskriminaziorik, indarkeriarik edo bazterketarik jasaten ez duten eguna, eta ea haien errealitateak eta identitateak guztiz normalizatzen diren eta ez den beharrezkoa horrelako azterketetan ikusgai jartzea.

## Pornografiaren kontsumoa COVID-19aren krisian

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak ezarritako alarma-egoeran eta konfinamenduan argitaratu da txosten hau. *Pornhub* webgunearen arabera –munduan gehien erabiltzen denetako bat–, pornografia-kontsumoaren munduko trafikoa % 18,5eko hazkunde masiboa izan zuen 2020ko martxoaren 24an. Gainera, emakumeen bisitek ere gora egin dute nabarmenki webgune horretan (% 17,4). Espainiaren kasuan, koska handia martxoaren 17an izan zen, konfinamenduaren hirugarren egunean eta webguneak *Premium* kategoriaren doakotasuna iragarri zuen egunean. Igoera hori % 61,3koa izan zen, eguneroko ohiko trafikoaekin alderatuta.


Ez dago nerabeen artean pornografia-kontsumoan gertatutako gorakadari buruzko daturik (txosten hau idatzi arte behintzat ez). Alde horretatik, bi gogoeta egin litezke: gehiago kontsumitzen al dute, pertsona helduek bezala, egunean 24 orduz etxean daudelako? Edo agian gutxiago kontsumitzen dute, egun osoan gurasoekin edo zaintzaileekin daudelako?

## Pornografia ikusi dute?

Inkestan parte hartu zuten nerabeen % **69,7k** pornografia ikusi dute noizbait. Sexuaren arabera banatzean, **alde handia dago nesken eta mutilen artean: 10 mutiletatik 9k pornografia ikusi du noizbait, eta, nesken kasuan, berriz, erdiek.**

Genero ez-bitarra (mutiko-neska edo bitar deiturikoarekiko genero desberdina) zuten bi pertsonetatik, batek ikusi zuen pornografia. Orientazio sexualari erreparatuz gero, joera bera ikusten da, gehienek pornografia ikusi baitute.

### Ikusi duzu inoiz pornografiarik?



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.


## Noiz eta nola ikusi zuten lehen aldiz?

Euskadin, pornografiarekin lehen kontaktua izateko batez besteko adina **12 urte eta erdikoa da**. Oro har, **neskek** pixka bat beranduago eskuratzen dute eduki hori, **13 urterekin** batez beste, eta mutilek, berriz, **12 urterekin** izaten dute lehen kontaktua, batez beste.

La forma más común del primer acceso es a través del grupo de iguales, ya sea porque un amigo o amiga se lo enseñó en un dispositivo, o porque le habló de ello y luego fueron a buscarlo. Como segunda forma de acceso más habitual destaca la búsqueda por iniciativa propia (aunque se desconoce si es con el propósito de aprender sobre sexualidad o para el placer sexual).

## Maiz ikusten dute?

Ikusi duzu pornografiarik azkeneko 30 egunetan?



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

Pornografia ikusi duten **pertsonen % 66,5ek** pornografia bilatu dute azken 30 egunetan. Goiko grafikoan ikus daitekeenez, **ohiko kontsumoa bikoitza da mutilen**

artean. Genero ez-bitarreko nerabeei dago-kienez, esan behar da soilik batek erantzun diola galderari eta azken 30 egunetan pornografia kontsumitu duela.

## Zer kontsumo mota?


(...) «Nerabeek pornoa kontsumitzeak kezkatzen ditu familiak, baina zortzi urte betetzen dituztenean sakelako telefono bat oparitzeak ez». (...)

**Aditua, herritarren ekimeneko arlokoa**

Ikus daitekeenez, Euskadiko nerabeek estatuko biztanleria osoaren eredu berberei jarraitzen diete, haiei egindako inkestaren arabera. Hala, ikusten dugu pornografia es-

kuratzeko bide nagusiak **webguneak** direla, ez dutela **ezer ordaintzen** eta gehienek **ez dituztela sare sozialak edo aplikazioak erabiltzen** pornografia ikusteko. Gainera, % 90,2k bakarka ikusten ditu eduki horiek, eta inork ez ditu bikotekidearekin ikusi. Azkenik, **erdiak baino gehiagok uste dute beren kontsumoa arduratsua dela**. «Askotan, nahiko nukeena baino pornografia gehiago kontsumitzen dudala sentitzen dut» esaldiarekin ados dauden galdetu zaienean, honako erantzun hauek jaso ditugu:

.....  
**Askotan, nahiko nukeena baino pornografia gehiago kontsumitzen dudala sentitzen dut**



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.


## Nola hautematen dute?

Nerabeek kontsumitzen duten pornografia hautemateko modua, besteak beste, honako faktore hauen arabera da: aurretiazko itzaropenak, fikzioa errealitatetik bereizteko gaitasuna eta harremanetan indarkeria- eta desoreka-egoerak identifikatzeko gaitasuna.

Haien espektatibei buruz galdetzean, **heren batek baino gehiagok uste du pornografiak askotan betetzen dituela bere espektatibak, eta nerabeen % 50ek uste du noizbait bakarrik betetzen dituela.**

Baina, konturatzen al dira ikusten ari direna fikzioa dela? **Inkestari erantzun dioten nerabeen erdiak baino gehiagok (% 60,4) badaki bereizten bere sexu-praktiken eta pornografian agertzen direnen artean.** Hala ere, 6tik ia 1ek uste du bere sexu-harremanak eta pornografian ikusten dutena antzekoak direla. Azkenik, % 20 inguruk ez daki pornografiaren eta bere sexu-harremanen artean antzekotasunik dagoen, ehuneko hori pornografiarik ikusten ez duten pertsonekin lotu daitezkeen arren.


Ikusten dutan pornografiak nire itzaropenak betetzen ditu



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

Eszena bortitzei dagokienez, **gehiengo zabalak (% 81,2k) onartzen du eduki pornografikoak, batzuetan, bortitzak direla.** Hala ere, mutilen artean, **% 5 handiagoa da indarkeriarik ez dagoela uste dutenen ehunekoa; bestalde, nesken artean mutilen artean baino ia % 20 handiagoa da indarkeria dagoen**

**adierazpenarekin oso ados daudenen ehunekoa.** Neskek zalantza gehiago izaten dituzte indarkeriazko edukiak dauden ala ez esateko orduan, eta hori pornografiaren kontsumo txikiagoarekin lotuta egon daiteke. Genero ez-bitarreko bi pertsonen indarkeria dagoela onartu zuten.



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

(...) «Zu normal baldin bazaude eta neska bat zigortzen ari diren bideo bat jartzen badizute, ba horrek berotuko zaitu». (...)


**Nerabea**

Pornografian berdintasunari buruz dagoen pertzepzioari dagokionez, indarkeriarekin gertatzen denaren joera bera gertatzen da. **% 77k uste du pornografia, oro har, ez dela berdintasunezkoa, baina neskak**

**baino askoz mutil gehiagok uste du baidela (ia 6 aldiz gehiago: mutilen % 22k eta nesken % 3,6k).**

Galdera hori pornografia ikustearekin edo ez ikustearekin lotzen badugu eta horren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu pornografia ikusi duten pertsonak direla berdintasun falta gehien identifikatzen dutenak (logikoa izan daiteke, kontsumitu egiten baitute).

## Normalean, gizonen eta emakumeen arteko harremana berdintasunezkoa da pornografian




Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

Gehien gustatzen zaizkien bideoei buruz galdetzean, gehiengo argi batek nahiago ditu gizonen eta emakumeen artean hierarkiarik ez dutenak (% 66,9). Hala ere, **bada datu adierazgarri bat: 3 nerabetik 1ek nahiago du botere-harremanak ikusi.** Horien artean, gehienek nahiago dute emakumea izatea bideo edo eszena pornografikoetan botere/autoritate figura bat irudikatzen duena. Gutxiagok gozatzen dute gehiago gizonak agintea duen eszenekin (% 9,2).

Lehentasun horiek azken hilabeteen pornografia ikusi duten eta ikusi ez duten nerabeen artean aztertuz gero, ikusiko dugu, oro har, **pornografia kontsumitu ohi dutenek interes handiagoa agertu ohi dutela gizonen eta emakumeen arteko harreman hierarkikoekiko.** Bi kasuetan, hala ere, gehienek nahiago dute inolako botere-harremanik ez egotea eszena pornografikoan parte hartzen duten pertsonen artean



## Gehien gustatzen zaizkidan bideoak edo eszenak



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

**Azkenik, nerabeak pornografian beste arrisku batzuk identifikatzeko gai dira.** Inkesta egin zaien nerabeen % 74k onartzen

du praktika arriskutsuak agertzen direla, adibidez, preserbatiborik gabeko sexua.

## Nola eragiten du pornografiak?

Behar luketena baino pornografia gehiago kontsumitzen ez dutela pentsatzen dute, eta, horrekin batera, gehienek ez dituzte beste jarduera batzuk alde batera utzi bideo sexualak ikusteagatik. Hala ere, **% 12,6k utzi ditu alde batera**, eta hori kezkarria da.


**% 33,4k uste du pornografiak eragin handia edo nahiko handia izan duela bere sexu-harremanetan. Eduki horiek maizago ikusten dituzten nerabeek nahiago lukete beren harremanak ugariagoak izatea.**

(...) «Izugarri eragiten du. Zuk nahi ez arren, eragiten du, eta hori da okerrena; izan ere, moralki gustuko ez dituzun gauzak gusta dakizkizuke gero, eta berotu egiten zaituzte. Zuk nahi ez izan arren, berotu egiten zaituzte».

(...)

Mutil nerabea

### Nire sexu-harremanak ugariagoak izatea nahiko nuke. Kontsumo-maiztasunaren arabera



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

Bestalde, **erdiak (% 49,8) uste dute pornografiak ideiak eman diezazkiekeela beren esperientzietarako, eta gehienbat mutilek uste dute hori.**

Ildo beretik, nerabeen % 46,5ek nahiko luke ikusten duena praktikan jarri. Hala ere, gehienek ez dute inoiz imitatu (nahiz eta mutilek neskek baino gehiagotan imitatu duten).

Aztertutako aldagai guztiak kontuan hartuta, ikusten dugu jabetzen direla ikusten dutena ez dela erreal, edukiak bortitzak direla eta harreman desorekatuak dituztela, eta badirudi, oro har, ez dutela ikusten du-

tena imitatzen. **Zer gertatzen da orduan praktika kaltegarriekin?**

## Sexu-desiraren eraikuntza

Gaur egun, pornografia berriak (mugagabea, irisgarria eta doakoa) fikziozko sexu-harremanak erakusten ditu, gorputz irrealakiko harremanak, indarkeriaren ezaugarriek markatutakoak, baimenik gabekoak, desberdintasunean oinarritutakoak; emakumearen min fisikoa zerbait erotikoa balitz bezala irudikatzen dute, eta, batzuetan, haurren aurkako sexu-abusuarekin lotuta ageri dira.

**Nerabeen sexu-desira, neurri handi batean, pornografiaren kontsumoaren ganean eraikitzen da.** Praktika batzuk normalizatzeak «*moral etikoa arintzen du*», eta indarkeriazko jokabide laidogarriak nerabeen sexu-desiraren osagai izan daitezen laguntzen du. Normalizatutako jokabide horien barruan, askotariko sexu-praktikak sartzen dira, eta, beraz, baita pornografia mota edo kategoria asko ere.

Ilido horretatik, pornografiako webguneei hainbat kategoria bereizten dituzte, hala nola «Nerabeak, neskatxak/zaharrak, helduak, ohekide izango zenituzkeen amak, asiarrak, beltzak, ilegorriak, bular txikikoak, lesbianak, haurtzainak», etab.<sup>24</sup> Kategoria horien bidez, sexu-desirari buruzko honako ideia hau betikitzen da: gizonezkoaren sexu-desira heterosexuala da «balio duena», eta emakumeak sexu-objektu bihurtzen ditu, edo desoreka-egoera batean kokatzen ditu.

Bideo pornografikoen esparruko beste aukera batzuek emakumeen sufrimendu fisikoaren ikuspegi erotikoa ematen dute; laburbilduz, «*Penetrazio bikoitza, Gagginga (ingelesetik, goragalea izatea)*» eta horrelako kategoriek emakumeak arrazoi batengatik edo besteagatik minez erakusten dituzte. Beste bideo batzuek emakumeen baimenik eta sexu-desiorik gabeko jarduerak normalizatu dituzte, hasiera-hasierako eszenetatik. Azkenik, emakumeak haur itxurarekin eta adingabe gisa ageri dituzten bideoak nabarmendu behar dira (adibidez, «*Barely legal/la ilegal*» kategoriakoak), eta badira adingabeak grabatzen dituzten bideoak ere<sup>25</sup>.

Sexualitateari, baimena emateari, gorputzaren autonomiari eta horrelakoei dagokien nahikoa heldutasun eta tresna izan gabe material horrekiko dugun esposizioak horrelako edukien normalizazioa ekar dezake.

Kezka handia sortzen du horrek guztiak; are gehiago, kontuan hartzen badugu **pornografia ikusteko ohitura duten nerabeen % 52,2k jarduera horrek bere sexu-esperientzietarako ideiak eman diezazkiokeela uste duela** (gizonen kasuan gehiagotan), eta **% 54,9 ikusitako hori praktikan jarri nahi lukeela**. Azkenean, **eduki pornografikoak ikusten dituzten nerabeen % 13,9k praktikan jarri dute eszenaren bat**.

24 Gavilán, 2018.

25 Gavilán, 2018.

## Praktika arriskutsu eta kaltegarriak

Arrisku-jokaerak edo praktikak **pertsonaren ongizateari eta garapenari kalte egin diezaioketenak dira**. Honako azterlan honetan, nerabeen osasun fisikoan ondorioak dituztenez eta haien osasun psikosozialean izan ditzaketen eraginez ari gara.

Ongizate integrala eta garapen libre eta positiboa nerabeen oinarritzko eskubideen zati dira. Bestalde, alderdi horietan eragin negatiboak dituen jokabide orok nerabeen eskubideak urratzen ditu.


Askotariko arrisku-jokaerez ari gara, hala nola botere-hierarkian oinarritutako sexu-harremanez, askatasuna galtzea edo bestea gauza bihurtzea ekar baitezakete, edota bikote barneko indarkeria mota oroz, batez ere, genero-indarkeriaz.

Argazki edo bideo intimoen bidez besteen aurrean gure burua agerian uztea ere (*sexting* bidez edo bideo-txaten bidez) arriskutsua izan daiteke; adibidez, edukien hedapenari buruzko kontrola gal dezakegu, eta pertsona askorengana irits daitezke gure irudiak, edo gerta dakiguke Internetetik gure irudiak behin betiko kendu ezin izatea.

Azkenik, ezin ahantz ditzakegu osasunari dakartzkion arriskuak. Babesik gabeko sexu-harremanek nahi gabeko haurdunaldiak izan ditzakete ondorio, edo sexu-transmisioiko gaixotasunak (STI eta STG<sup>26</sup>).

**Ildo horretatik, galderari erantzun dion gazteen erdiak ez ditu erabiltzen beti haurdunaldiak edo sexu-transmisioiko gaitzak saihesteko metodoak<sup>27</sup>.**

Babes-neurrien erabilera sexu-harremanetan



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

26 Elkarrekin oso lotuta dauden bi kontzeptu dira Sexu Transmisiozko Infekzioa (STI) eta Sexu Transmisiozko Gaixotasuna (STG), eta bata zein bestea erabil daiteke. Hala ere, ez dira zehazki gauza bera. Zuzeneko sexu-harreman bidezko infekzio bat (STI) izateak ez du esan nahi pertsona horrek sexu-transmisiozko gaixotasunaren (STG) sintomak dituenik edo gaixotasun hori duenik. Adibidez, giza papilomaren birusak (GPB) ez dakar beti umetoki-lepoko minbizia.

27 Ezin izan dugu landu preserbatiboaren erabilaren eta pornografiaren arteko erlazioa.

la nerabeetako inor ez du bisitatu **sexu-edukiekiko bideo-txatik, baina % 4,9k dio parte hartu duela inoiz.**

**% 9,5 jarri da ezezagunekin harremanetan Internet bidez behin gutxienez, sexu-kontuekin lotuta.** Aldiz, ligatzeko aplikazioak erabiltzen dituzten galdetu zaienean, baiezkoa diotenak % 7,2 dira. **Ehunekotan, txikia da aldea, baina garrantzitsua.** Erantzunetan sumatutako alde horiek azaltzeko, kontuan hartu behar ko genuke agian zer ulertzen duten nerabeek «ligatzea» eta «sexu-kontuekin lotuta harremanetan jartzea» diogunean. Gainera, kontuan izan behar dugu sozializatzeko eta harremanetarako bide orokor eta ohikoak direla plataformak eta aplikazioak adingabe hauentzat.

Azkenik, **inoiz pornografia ikusi duten pertsonen gehiagotan erakutsi dituzte Interneten eta sare sozialetan argaz-**

**kiak eta bideoak pornografiarik ikusi ez dutenek baino.** Lehenengoan artean, 10 nerabetatik batek noiz edo noiz edo sarri egin izan du halakorik.

Ehunekoa txikia bada ere, hazten ari den errealitate baten adierazgarri da, eta beharrezkoa da iraganeko joerak aztertzea, etorkizunari begira. Nahiko fenomeno berria da, azken urteotakoa, eta online sexu-indarkeria jasateko arrisku handia adierazten du<sup>28</sup>, hala nola online groominga, baimenik gabe *sextinga* o *sextortsioa*. Gainera, indarkeria birtuala indarkeria fisikoa bezain erreal eta mingarria izan daiteke, eta harekin nahastuta agertzen da. Heldu bat nerabe batekin harremanetan jartzen bada eta material sexuala bidal diezaion engainatzen badu, errealitatean biak elkartzea ekar dezake horrek, eta sexu-abusu fisikoa gerta daiteke.

## Baimena ematea

**Baimenari buruzko debatearen garrantzia** eta ikerketan lortutako emaitzak ikusita, ezinbestekoa da espezifikoki lantzea gai hau.

(...) «*Normalean, bortxaketetan, emakumeak ezetz esaten ez badu, gizona koentzatat ahal duten seinale da, eta, noski, pornoan ez dute ezer esaten; ez dute esaten ez ezetz, ez baietz, ez ezer; orduan, gizonak pentsatzen dute jarrai dezaketela*». (...)

*Aditua, akademiaren arlokoa*

**Baimena diogunean, edozein unetan inolako presio edo mehatxurik gabe (fisikoak edo sotilagoak) baimena emate-**

**ko edo ez emateko dugun aukeraz ari gara.** Adostasunaz ari ara, sexuaren bidez harremanetan jartzen diren pertsonen arteko adostasunaz; pertsona bakoitzak bere desirak adierazteko edota ezetz esateko duen askatasunean oinarrituta. Onartzeko, baimena emateko, beharrezkoa da berdintasunetik abiatzea.

**Pornografiaren alderdirik arriskutsuena** horrexekin dago lotuta: ez da behar eta ez da planteatu ere egiten baimena ematerik; indarkeria esplizituki erabiltzeaz gain. Askotan, **emakumeek ez dute baimenik adierazten**, eta, areago, **nahigabea edo mina sentitzen dutela** ere ikusten da batzuetan, eta horrek ez du eszenaren garapena ezertan aldatzen.

28 Save the Children España, 2019.

Onarpen falta hori **normalizatzeak** eta, horrekin batera, hezkuntzaren bidez garatuko litzatekeen **pentsamendu kritikorako gaitasuna falta izateak eragin negatiboa izan dezakete desiraren eraikuntzan eta harremanetan**<sup>29</sup> (sexu-harremanetan, gizarte-harremanetan nahiz bikote-harremanetan).

(...) «Batuetan, hortik datoz jazarpena eta horrelakoak, adibidez. Askotan, mozkortzen zarenean, edo drogak hartzen dituzunean, eta burutazio horiekin neska baten bila itsututa jotzen duzunean, nahiz eta ezetz esan dizun (...) Zertan ari zaren pentsatu gabe ari zarelako, noski». (...)

**Mutil nerabea**

Esku-hartzeen eta ikerketaren esparruko profesionalek beren kezka agertu dute, pornografian ez delako adostasun edo baime-

naren aztarrenik, eta nerabeen sexu-desiran eragin negatiboa izan dezakeelako horrek. Batuetan, emakumea sufritzen ikusten da, minez, baina eszenaren emaitza ez da ezertan aldatzen. Ildo horri jarraituz, galdetu diegu ea imitatu ote duten eszenaren bat, eta bikotekidearekin **ados jarrita, baimenarekin, jardun duten, edo bikotekideari ezertxo ere esan gabe**<sup>30</sup>.

Ikusitako eszenak imitatzen dituztenean, ez dute beti aurretiaz horretarako baimenik eskatu edo ez dira ados jarri, eta kezkarria da hori, are gehiago kontuan hartuta pornografian ikusten diren arrisku-jokabideak.


(...) «Lantegi baten ondoren, hainbat mutil etorri izan zait esanez ez zekitela egiten ari zirena gaizki zegoenik, eta nola aldatu dezaketen jokabide hori». (...)

**Aditua, esku-hartze sozialen eta aktibismoaren arlokoa**

29 Ikerketaren eta esku-hartzeen esparruko profesionalekin egindako elkarrizketetan, nerabeek ikusten den horrekiko kritikoak izan behar dutela azpimarratzen da, eta jarrera kritiko hori askotan hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez lantzen dela.

30 Datuak interpretatzeko orduan, kontuan hartu behar dugu inkesta egin zaien pertsona guztiek ez diotela erantzun galdera honi, eta, gainera, pertsona berak galdera bati baino gehiagori ere erantzun ahal izan diola. Bestalde, garrantzitsua da emaitza hauek kontu handiz hartzea. Norberak sexu-abusuren bat jasan duela edo egin duela onartzea adieraziko luke, eta, beraz, horrek berak ere baldintzatu dezake erantzuna. Indarkeriaren inguruan norberak duen pertzepzioa eraikuntza-lan konplexua da, adin orotan, eta nerabearoan, gainera, pisu handiagoa hartzen dute ingurunearen presioak eta esperientzia edo hezkuntza faltak.

### Pornografiako eszenak praktikan jarri dituzu?



Iturria: geuk egina, inkestaren emaitzetatik abiatuta.

#### **Pornografiaren arriskua, batez ere, zera da**

Nerabeek beren desira ikusten duten horren gainean eratzeari, **ikus-ten duten hori indarkeriazkoa edo desorekatua izan arren.**

Beren baimena, desirak edo nahiak, edo besteenak, **inork ez dituela zertan kontuan hartu pentsatuz haz daitezke, eta horixe da arriskutsuena.**

Hori **guztia ondo dagoela pentsatzeak dakar** arriskua.

## Hezkuntza afektibo eta sexuala, prestakuntza integralaren zati gisa

### Zer den hezkuntza afektibo eta sexuala

**Hezkuntza afektibo eta sexuala eskubide bat da.** Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (Espainiak berretsitakoa den aldetik, antolamendu juridikoaren barnean dago) honako hau dio hezkuntzaren xedeez: “Horrez gain, gizarte libre batean beren arduraren hartuta bizitzeko prestatu behar ditu, ulermenean eta bakean, tolerantzian, sexuen arteko berdintasunean eta herrien arteko adiskidetasunean oinarrituta” (29. artikulua). Beraz, eskubidez dagokien prestakuntza integralaren zati bat kenduko litzake hezkuntza mota hori emango ez bagenie.

**Hezkuntzako eduki gisa, pixkana garatzen den jardura pedagogikoa da, eduki zorrotz eta objektiboak dituena, biologian, psikologian eta garapen sozialean oinarrituta.** UNESCOren iritziz, hezkuntza horrek ezaguera, gaitasun, jarrera eta balio ugari hornituko ditu haurrek eta nerabeak, eta ahaldu egingo ditu horrek berak, osasun ona, ongizatea eta duintasuna izateko, errespetuzko harreman sozial eta sexualak izateko, hartzen dituzten erabakiek beren ongizateari eta besteenari eragiten dietela ulertzeko, eta bizitzan zehar zer eskubide dituzten eta nola babes ditzaketen ulertzeko<sup>31</sup>.

### Hezkuntza afektibo eta sexualaren errealitatea

Gaur egun, Espainian, **curriculumek ez dituzte horrelako edukiak jorratzen dituzten nahitaezko irakasgaiak.** Hezkuntzaren Lege Organikoa aldatuko duen etorkizuneko lege organikoak, printzipioz eta Lehen Hezkuntzari eta DBHri dagokienez, afektibitateari eta sexualitateari buruzko edukiak bildu beharko litzuzke.

Horretarako, ezinbestekoa da araututa **emango den eduki izatea, eta oso adin goiztiarretatik hasita eduki horiek lantzen, heldutasun mailara eta hezkuntza-etapa bakoitzera egokituz,** eta genero-berdintasunean eta sexu- eta genero-aniztasunean oinarritutako ikuspegi argi batekin.

(...) «*Ematen diguten sexu-hezkuntza zera da, plastikozko zakil batean preserbatibo bat jartzea*». (...)  
*Neska nerabea*

**Hezkuntzaren bidez ahaldu dituzakegu.** Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko tresna bat da hezkuntza afektibo eta sexuala, egoera arriskutsuei aurrea hartzeko, horrelakoak detektatzeko eta erantzuteko gaitasuna ematen baitie horrek. Haurren sexualitateari buruzko **tabua baztertu behar dugu,** eta elkarrizketa bultzatu behar dugu haurtzaroan nahiz nerabearoan.

Bestalde, **estatuan badago jada lege bat, hezkuntza afektibo eta sexuala aurreikusten duena. Sexu eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko 2/2010 Lege Organikoak, 5. artikuluan, esaten du afektu, sexu eta ugalketaren inguruko informazioa eta hezkuntza bermatuko dutela botere**

31 Orientaciones técnicas internacionales sobre educación en sexualidad, UNESCO, 2018.



publikoek, hezkuntza-sistemaren eduki formalan.

Hala eta guztiz, ez daukagu oraindik estatuan adin goiztiarretan hezkuntza afektibo eta sexualari buruz nahitaezkoa eta arauzkoa den edukirik. Aurkako ugari aurkitzen ditu bidean aplikatzerakoan, eta autonomia-erkidegoetako agintarien eta tokikoen borondatearen araberrako ekimenetara, ikastetxeetara, irakasle eta GKEen jarduerara mugatuta gelditzen da; beraz, ez dira ez homogeneoak eta ez arautuak.

**Euskadin ere, ez daukagu gaur egun eduki hau araututa eta nahitaezko izaeraz ezarrita.** Hezkuntza afektibo eta sexualaren gaia esparru askotatik landu da (osasuna, berdintasuna, hezkuntza, gizarte-politikak), eta, gaur egun, administrazioak sustatutako plan eta ekimen askotan jaso da. Praktikan, heterogeneotasun handia ekarri du horrek ikastetxeen artean: batzuek hezkuntza afektibo eta sexualeko edukiak txertatzen dituzte beren urteko planetan edo ikastetxearen proiektuan; beste batzuek zeharka txertatzen dituzte hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa; beste batzuek kanpoko erakundeen esku uzten dute gaia, eta hitzaldiak edo lantegiak ematen dituzte, hainbat planteamendu eginez, nahiz eta zaila den halakoei luzera eustea; eta, azkenik, beste batzuek ez diote heltzen gaiari, arrazoi askorengatik: gaitasunik ez dutelako, baliabiderik ez dutelako, ideologiagatik, ekimen faltagatik... Dena den, hezkuntza hori batez ere DBHn oinarritzen da.

Argi dago **Euskadin kezka sortzen duen eta kontuan hartzen den gaia dela**, hainbat urte baitaramatzagu esparru horretan lanean. Alde batetik, **Euskadiko hezkuntza-curriculumak** hauxe dio berariaz hezkuntza-administrazioaz: “profesionalei prestakuntza ematea, hezkidetzaren eta aniztasun afektibo-sexuala sustatzeko

hezkuntza inklusiboa garatzeko”<sup>32</sup>. Gainera, **ikastetxeak hezkuntza afektibo eta sexualeko programak garatu ditzaten bultzatu beharko dira**, prestakuntzako eta arrisku-egoeren prebentziarako programatzat landuta. Gainera, hezkuntza argi eta xumean egin behar direla dio, ikasleen gaitasun eta bilakaera-garapenaren arabera egokituta, betiere...

Bestalde, *EAEko hezkuntza-sistemarako II. hezkidetzaren plana*, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023 planean, **berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala da hezkidetzaren zortzi euskarrietako bat**, eta esparru horretako edukiak hezkuntza-etapetan garatzen ditu, hasi Haur Hezkuntzatik eta Bigarren Hezkuntzara arte. Hainbat gai jorratzen dira: norberaren gorputzaren ezagutza, atxikimendua eta genero-identitateen errespetua; sexu-orientazioak ezagutu eta errespetatzea, genero-estereotipoen analisi kritikoa, **tratu onak sustatzea eta indarkeriaren prebentzioa harreman afektibo eta sexualetan**; maitasun erromantikoaren dekonstrukzioa, sexu- eta erreproduktzio-osasunaren arloko baliabideak hurbiltzea, **sare sozialen erabilera etikoari buruz eztabaidatzea, edota pornografiaren esparruko harremanenak, indarkeria eta desberdintasunean oinarritutakoak**, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, plan honen barnean hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko proiektuak garatu dituzten 379 ikastetxe daude gaur egun Euskadin 2013-2014tik; gutxi gorabehera, ikastetxe guztien herena.

2013tik, gainera, heziketa afektibo-sexualerako SEXUMUXU programa ere badugu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sustatutako programa da. Proposamen interaktiboa da, bideojoko hezitzaile bat duena, eta

32 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. EHAA, 2016/01/15.

DBHko hirugarren eta laugarren mailetakoko ikasleei zuzentzen zaie. Programaren helburu nagusia da nerabeei laguntzea dituzten premia afektibo eta sexualak gobernatzeko gaitasunak barneratzen. Gainera, materiala eskaintzen du bai irakasleentzat eta bai gurasoentzat. Aurreko Uhin Bare programak ez bezala, honek, **SEXUMUXUk, dimentsio afektibo eta sexuala DBHko curriculum-proiektuan txertatu nahi du.**

Sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak gai hauetarako duen informazio- eta arreta-zerbitzuak Berdindu Eskolak zerbitzua jarri du ikastetxeen esku. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzentzen zaie; eta aholkuak eta prestakuntza eskaintzen zaizkie ikastetxeetako irakasleei, sexu-aniztasuna eta LGTBI pertsonen kontrako diskriminazioarekin lotutako arazoak lantzeko interesa dutenei.

Horrez gain, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako hainbat programa daude Euskadin, batez ere Emakundek sustatzen dituenak eta ikastetxeei zuzentzen zaizkienak, baina, aldi berean, berriro ere, borondatezko izaera dutenak. Adibidez, berdintasunerako, errespeturako eta biolentziarik ezerako Nahiko programan, 200 ikastetxek hartu dute parte ia abian jarri zenetik bete dituen 15 urte hauetan; bi urtean behin

deialdiaren bidez, beren borondatez sartzen dira programa horretan ikastetxeak.

Badago kontzientzia, beraz, hezkuntza afektibo eta sexualak haurtzaro eta nerabezarorako duen balioaz. Horrez gain, jardunbide egokitzat jo daitezkeen askotariko programak daude Euskadin, baina, hala ere, ez dira modu homogeneo batean iristen guztiengana, eduki horiek ez daudelako araututa eta ez direlako nahitaezkoak.

EAEko haur eta nerabe guztiei adin goiztiarretatik eta modu aratu eta egoki batean hezkuntza hori jasotzeko duten eskubidea bermatzeko aukera dugu. Zergatik jarraitu behar du hezkuntza mota horrek izaera mugatua duten programa eta ekimen boluntarioen esparruan?

Hori guztia aintzat hartuta, **nahikoa da? Informazioa iturri bideragarrietatik lortzen dute?**

Nerabeek askotariko iturrietatik lortzen dute informazioa; baina horien artetik garrantzi handiena duena, zalantzarik gabe, parekoen taldeari dagokio (% 64ko maiztasuna); ondoren, irakasleei dagokiena dator (% 43), eta, azkenik, linternetekoa (% 33).

.....  
**Praktikan, non ikasi duzu sexualitateaz dakizuna?**



Iturria: geuk egina, inkestarekin emaitzetatik abiatuta.

**Inkestan aztergai izan diren bost autonomia-erkidegoetatik<sup>33</sup> EAEko nerabeak dira prestakuntza-ordu gehien jaso dituztenak, beraiek adierazitakoaren arabera; eta alde handiarekin gainera. % 62,7k dio azken bi urteetan sexualitatearen inguruan 9 ordutik gorako prestakuntza jaso duela. 30 nerabek baino ez dute aitortu azken bi urteetako prestakuntza-orduak 1etik 4ra izan direla. Alde hori ikastetxe desberdinetan ikastearen ondorio izan daiteke; arlo hori araututa ez dagoenez, hezkuntza afektibo eta sexuala ematea dauden programak garatzeko ikastetxe bakoitzak duen ekimenaren eta borondatearen mende baitago.**

Inkestari erantzun dioten gehienek adierazitako prestakuntza-orduen zenbateko osoak aski dirudi nerabeengan modu esanguratsuan eragiteko, edo adostasunarekin edo norberaren gorputzaren autonomiarekin lotutako kontzeptuak txertatzeko. Dena den, kontuan hartu behar da zer adinetan hasten diren hezkuntza hori jasotzen ere, edo zer-nolakoak diren saioak; askotan haurdunaldien prebentzioa egitera edo kontzeptu anatomikoetara mugatzen baitira, eta gerta baitaiteke aintzat ez hartzea arlo afektiboa, berdintasuna edota aniztasuna.

Hala ere, badirudi ez dela aski jaso duten prestakuntza, **nerabeen % 64,3k sexualitateari buruzko informazio gehiago izan nahi bailukete.** Bestalde, azpimarratu beharra dago % 32,3ri berdin zaiola, eta

merezi du gogoeta bat horrek ere: berdin zaie kontua, badakitelako jakin beharrekoa? Ez dutelako interesik sexualitatean? Lotsatu egiten direlako galdera hori egiten zaienean? Sexu-orientazioari edo generoari dagokionez, ez dirudi alde handirik dagoenik, eta badirudi joera antzekoa dela: **batez ere bi joera dira nagusi, gehiago jakin nahi dutenak eta berdin zaienak.** Ez dirudi, beraz, joeretan alde esanguratsurik dagoenik generoaren edo sexu-orientabidearen arabera.

Gainera, inoiz pornografia ikusi dutenak dira sexualitateaz gehiago jakiteko interes handiagoa erakutsi dutenak. Aldiz, inoiz pornografia ikusi ez duten nerabeak dira batez ere “berdin zait” edo “ez dut informazio gehiago nahi” hautatu dutenak.

**% 60,2k ez du uste sexualitateaz ikasteko balio duenik pornografiak,** eta ez dirudi pornografiaren kontsumoak edo ikusteak informazio gehiagoren beharrekin loturarik duenik. Gainera, berriro ere **gehienek ukatu egin dute bideo pornografikoak direnik beren informazio-iturri bakarra. Eta prestakuntza jasotzen dutenerako berandu da jada askotan:** batez beste, jada 12 urtetik aurrera sexualitateari buruzko informazioa bilatzen hasten dira Interneten.

**Euskadin, nabarmen egin da aurrera hezkuntza afektibo eta sexuarekin, baina aurrera jarraitu behar du: nerabeen % 64,3k informazio gehiago izan nahi luke.**

33 Ikusi gainera autonomia-erkidegoen eranskinak; ordezkariak dugun autonomia-erkidego bakoitzeko bat.

# ONDORIOAK

**Ez da erraza nerabea izatea.** Bizitzako etapa konplexu bat da nerabearoa, al-daketa ugariz josia; hazkunde pertsonal eta fisikorako garaia da, esperientziak bizitzeko garaia, nortasuna eraikitzen doana. Teknologia ere markatzen du garai hori, garatzeko beste agertoki bat den heinean; inguruneak emakume izatea edota gizon izatea zer den esaten diete; helduek errezeloz begiratzen diete haien sexu-desirari, eta ez dute ulertzen zer den horren erakargarria sare sozialetan.

**Gure gizartearen akats berak ditu ingurune digitalak ere,** eta hor daude desberdintasuna eta genero-indarkeria, edota diskriminatu egiten da aniztasuna. **Emakumeen sexualitatea lotu egiten dute akats horiek guztiek, gizonen maskulinitatea zer den zehazten dute, eta «araua» betetzen ez duena zigortu egiten dute.**

**Pornografia berriak,** online, doan eta mugarik gabekoa den horrek, agindu horiei beroriei jarraitzen die, eta **kalte egiten die nerabeei.** Lehen aldiz pornografiarekin topo egiten dutenean, **deskuiduan izan ohi da, baina bilatu egiten dute gero,** zalantzak argitzeko; eta beren sexu-desira asetzeko, haren bila jarraitzen dute. Horrela, **indarkeriazko eta berdintasunik gabeko euskarri irreal baten gainean eraikitzen da pixkana sexu-desira. Badakite hori guztia, baina beren bizitzan horrek eragina duela ere onartzen dute.** Gainera, ikusi da, gutxitan imitatzen badute ere, imitatzen dutenean, ez dutela aurrez baimena edo adostasuna eskatzen beti, pornografian bezalaxe.

Euskadik **hezkuntza afektibo eta sexualaren aldeko apustua egin du** hainbat esparrutan azken bi hamarkadetan; **baina badago zer egin oraindik. Sexualitatea**

**modu integral batean lantzen dela bermatu behar dugu,** hainbat ikuspegi azpimarratuz: genero-berdintasuna eta aniztasuna, gorputzaren autonomia, adostasunaren eta elkarren errespetuaren garrantzia edota haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren prebentzioa.

**Modu arautu batean eta nahitaezko izaeraz txertatu behar da hezkuntza afektibo eta sexuala euskal curriculumean, adin goiztiarretatik** (Haur Hezkuntza), eta hezkuntza-etapen arabera behar bezala egokituta. **Horrela baino ezin izango da bermatu hezkuntza mota hori jasotzeko haur eta nerabeek duten eskubidea;** horrela baino ezin izango dira gainditu gaur egun sustatzen diren programa eta ekimenek bidean aurkitzen dituzten eragozpenak. EAE ez da zerotik abiatu, urte askoko esperientzia baitu hainbat programatan; eta hortxe ditu Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzako II. Planean definitutako zutabeak ere. **Barneratutako eza-gutzak oinarritzko zeregina betetzen du irakasleen prestakuntzan, curriculumean txerta dadin.**

**Gainera, ingurune digitalaren aurrean begiak ez dituela ixten bermatu behar du gobernuak. Haurrek eta nerabeek laguntza eta babesa behar dituzte indarkeriarik gabeko pertsona arduratsu gisa hazten lagunduko dieten gaitasunak garatu ahal izateko.** Funtsezkoa da laguntza sendoa izatea beren sexualitatea aurki dezaten eta Interneten bidez harremanak izateko moduak lant dituzten. Gaur egungo gizartean, **informazio asko dago, baina prestakuntzarik gabeko informazioa ez da hezkuntza.**

Eragozpenik gabe garatu daitezten, tresna egokiak behar dituzte. Eta, egiaz, sexualitateari buruzko informazio gehiago eskatzen

ari dira. Ezin dugu bestaldera begiratu: eman diezaiegun eskatzen digutena.

## GOMENDIOAK

### Euskal administrazioentzako gomendioak

- **Eusko Jaurlaritzak eskatzea haurrek eta nerabeak osorik babesteko Lege Organikoaren Proiektua onar dezan.** Horrela baino ez dugu izango esparru-arau bat, errealitate horri helduko dion lege integral bat, administrazio maila guztietan kontzientziazio-, prebentzio-, detekzio-, babes- eta lehengoratzeko neurriak ezartzea ahalbidetuko duen estrategiaren bizkarrezurra izango dena.
- Euskadin, **Haurren eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren Prebentziarako eta Arretarako Euskadiko Estrategia** onartzea:
  - Indarkeria mota guztiak osorik kontuan hartuko dituen, eta EAEn Indarkeriaren aurkako babes osorako Lege Organikoa ezartzeko aukera emango duena.
  - **Prebentzio-politikak eta jarduketako protokoloak arrisku- eta indarkeria-egoeren aurrean.** Protokolo horiek errealitatea abiapuntutzat hartuta diseinatutakoak izan behar dute. Errealitatean, nerabeen jarrera eta praktika batzuk indarkeria bilaka daitezke, indarkeria fisikoa nahiz birtuala, eta beren bizitzako esparru guztietan ageri dira horrelakoak.
- **Herritartasun digitalerako hezkuntza.** Teknologiaren erabilera seguruan eta arduratsuan heztea, aurreiritzirik eta beldurrik gabe, eta sareko pornografiari eta hark dituen arriskuei erreferentzia espezifikoak egitea. Nerabeentzat oinarrizkoa da beren bizitzako eremu garrantzitsuenetako bat maneiatzen jakitea. Ezin dugu teknologiak eskaintzen jarraitu, erabiltzeko beharrezkoak diren tresnak eskaini gabe. Horregatik, inguru digitala haien hezkuntzan txertatu behar dugu.
- **Haurren kontrako indarkeriaren erregistro bateratua, estatuko erregistro batekin koordinatuta.** Indarkeria forma guztien datu-base batek tresna estandarizatuak eraikitzen eta ebaluazio sistematikoak egiten lagunduko liguke, eta baita indarkeriaren kontrako borrokan esku hartzen duten administrazioak eta eragileak koordinatzen ere.

- **Sentsibilizazio-kanpainak.** Sentsibilizazio eta kontzientziazio-kanpainek garrantzi handia dute **diskriminazioaren**, intolerantziaren, bereizkeriaren eta mota guztietako indarkeriaren **prebentzioan**. Horrela, ezinbestekoak dira haurrei eta, bereziki, nerabeei berdintasunean, aniztasunean eta indarkeriarik gabe hazten lagunduko dieten mezu argi eta ulergarriak. Kanpaina horiek **informazio-iturrien eta eduki pornografikoen aurrean espiritu kritikoa sortzen** ere lagundu behar dute. Gainera, familiei eta, oro har, herritarrei egokitutakoak izan behar dute, hezteko ikasi ere egin behar delako. **Haurren Euskadiko Lege berria onartzea**, adingabearen babes juridikoari buruzko 2015eko Estatuko Lege Organikoaren aldaketak eta honako alderdi hauek jasotzen dituena:
  - Haurren aurkako indarkeriaren ikuspegi integrala.
  - Indarkeriaren biktima diren adingabeentzat, prebentzio- eta arreata-mekanismoak abian jartzea.
- **Etorkizuneko Euskal Hezkuntzaren Legean hezkuntza afektibo eta sexualari buruzko eduki arautua eta nahitaezkoa sartzea** zeharka hezkuntza-curriculumean, haur eta nerabe guztiek, txikitatik, hezkuntza-etapa guztietan eta beren adinera eta heldutasunera egokituta jasotzen dutela bermatzeko.
  - **Irakasleak prestatzea Berritzeguneen bidez.** Azken hamarkadetan sustatu diren programen bidez jasotako ezagutzak garrantzi handia izango du irakasleen prestakuntzan, hezkuntzako etapa guztietako curriculumean eduki horiek eraginkortasunez txerta ditzaten.
- **Eduki horiek curriculumean txertatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea ikastetxeei.** Baliabide teknikoak, prestakuntzazkoak nahiz giza baliabideak, arreata berezia eskainiz hezkuntza-premia handienak dituzten ikastetxeei, Hamaika Esku zentroei, esaterako.
- **Estatuko Gobernuari eskatzea Administrazioaren eta Interneteko plataformen arteko lankidetzaz susta dezala, eduki pornografikorako sarbidea arautzeko mekanismoak abian jartzeko, eta, horrela, adingabeak pornografiara ez direla sartzen ziurtatzeko.** Plataforma horiek jabetu egin behar dute eta arduratsuak izan behar dute, eta edukia adingabeentzat egokia ez bada, 18 urtetik beherakoei ez dietela sartzen utziko ziurtatu behar dute.

## Nerabeentzako gomendioak

Harremanen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak harremanetarako beste modu bat dira nerabeentzat. Baina horiekiko pentsamendu kritikoa garatu behar da: zenbat denboraz erabiltzen ditugun, zertarako erabiltzen ditugun, etab. Gainera, garrant-

zitsua da ulertzea ikusten dugun guztiak edo erakusten diguten guztiak ez duela zertan onuragarria izan; kaltegarri izan daiteke guretzat, nahiz eta hasiera batean ez garen horretaz jabetzen. Horregatik, garrantzitsua da:

- Teknologien erabilera seguruari eta arduratsuari buruz galdetzea eta informatzea.
- Jarrera batzuek, hala nola argazki intimoak partekatzeak, ezezagunekin harremanetan jartzeak eta abarrek, dituzten arriskuei buruz informatzea.
- Pornografiaren atzean dagoen errealitateari buruz galdetzea eta informatzea.
- Konfiantzako pertsona heldu bati kezka eta egoera arraroak edo deserosoak kontatzea, bai eta atseginak ez diren edo egonezina sortzen dieten esperientziak bizitzen ari diren ere.
- Konfiantzako pertsona heldu batekin sexualitateari buruzko zalantzak eta jakin-nahiak partekatzea.
- Baimenak edo onespenezkoak duen garrantzia balioestea, bereziki sexu-harremanetan, eta duen garrantzia ematea, gizartean bizi garen pertsona askeak garen heinean.
- Aniztasunari, genero-berdintasunari, elkarrenganako errespetuari eta abarri buruz bakoitzak duen pertzepzioa lantzea.
- Norberaren eta besteen lehentasunak, gorputzaren autonomia eta baimen edo adostasuna balioestea.

## Familiatzako gomendioak

Ez da beldurrik izan behar, ikasteko borondatea izan behar da soilik. Familiak lagundu egin behar diete seme-alabei; debekatzea ez da irtenbidea. Pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen badiegu, eta elkarriketa-eta konfiantza-inguru bat sortzen badugu, hor egon ahal izango dugu gehien behar gaituztenean, eta, aldi berean, dagozkien ezagutzak eta autonomia emango dizkiegu. Horregatik:

- Hezi berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarrituta.
- Ezagutu haien interesak, kezka, non eta nola jartzen diren harremanetan, etab.
- Etapa bakoitzean haur eta nerabeek erakusten duten sexualitatearekiko interesa eta izaten dituzten afektuzko harremanak naturaltasunez hartu eta landu.
- Teknologia, Internet eta sare sozialak ikuspegi positiboarekin hartu eta landu, Interneten erabilera seguru eta arduratsua bermatzeko.
- Sortu elkarriketarako espazioak, zer gustatzen zaien, zerk kezkatzen dituen eta abar kontatzeko eroso sentiaraziko dituztenak.

- Erakutsi pornografiaren errealitatea eta mitoak, eta jarri haien eskura sexualitateari buruz ikasteko dituzten beste aukerak batzuk.
- Izan eredugarri: pertsona helduak ere elkarrekin bizi gara, harremanak ditugu, etab. Gogoratu: beti ari gara hezten, baita ezer egiten ez dugunean ere.

## Hezkuntzaren eta akademiaren esparruetarako gomendioak

### Nerabeak ahalduntzea

Nerabeak ahalduntzea ezinbestekoa da haien garapen askea eta ongizatea errazteko, eta baita askotariko indarkeria motak prebenitzeko ere. Baina tresna egokiak eta beren errealitateko arazoei egokitutakoak eman behar zaizkie:

- Nerabeak oro har: pentsamendu kritikoan oinarrituta hezi behar dira, genero-berdintasuna eta sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartuta. Horrela soilik garatu ahal izango dira aske, eta beren burua eta besteak errespetatu ahal izango dituzte.
- Neska nerabeak ahalduntzea: bakar-ka nahiz taldean, beren sexualitatea markatzen duten estereotipoetatik eta emakume gisa identifikatzeko modutik askatuta.

- LGTBI nerabeak ahalduntzea: ezin ditugu alde batera utzi. Aske garatu ahal izateko, txiki-txikitatik bistaratu behar da aniztasuna, eta erreferente errealak eta sendoak eskaini behar zaizkie, haiengana jotzeko aukera izan dezaten.
- Mutil nerabeak ahalduntzea: ezin dute hazi maskulinitateari soilik erantzun behar diotela pentsatuz, ez baitu zertan izan osasuntsua, eta ez baitute horrekin nahitaez identifikatu beharrik.

Lantegien eta eztabaida- eta gogoeta-taldeen bidez eman daitezke tresna horiek, talde edo lantegi horietan ikas dezaten eta erosotasunez eta beldurrik gabe beren jakin-nahiak eta zalantzak parteka ditzaten. Nerabearen prozesuari, sare sozialei eta Interneti, sexualitateari eta abarri buruz hitz egingo da talde edo lantegi horietan. Gai horietan esperientzia duten hezkuntzako eta ikerkuntzako profesionalek landuko dituzte estrategiak eta jarduketako-ildoak.

### Irakasleentzako eta familientzako prestakuntza

Familia eta ikastetxea oinarri-oinarrizko erreferenteak dira haurtzaroan, eta, beste batzuk gehitzen bazaizkie ere, ez dute rol hori galdu behar nerabezaroan. Hezteko, ikasi egin behar da. Familiek ere nerabeen

errealitatera gerturatu behar dute, haien hizkuntza-kodeetara eta kanaletara. Tresnak behar dituzte, seme-alaben beharrei zeharka, beldurrik gabe eta laguntza osoa eskainiz erantzun ahal izateko.



## Hautzaroko eta nerabezaroko sexualitateari buruzko ikerketak garatzea

Haurrentzako eta nerabeentzako politika eraginkorrak diseinatzeko eta ezartzeko, haien errealitatea ikertzen jarraitu behar dugu, diziplina anitzeko ikuspegi integrala oinarri hartuta. Bizitzaren hasieratik eta inguru sozial guztietan garatzen da sexualitatea. Prozesu bakarra da, eta pertsona bakoitzak bere modura bizi du. Ikerketa honetan, neskek eta mutilek prozesu horri

modu desberdinean aurre egiten diotela ikusi dugu. Era berean, genero ez-bitarreko pertsonen errealitatea eta sexu-orientazioaren arabera nerabezaroa ikusarazten saiatu gara.

Errealitate horiei guztiei egokitutako politikak nahi baditugu, ezinbestekoa da dituzten behar espezifikoak ezagutzea.

## Osasunaren arloko profesionalentzako gomendioak

Haurrekin eta nerabeekin esku hartzerakoan, kontuan hartu behar dira sozializazioarako moduen eta kanalen joera berriak, eta ez da alde batera utzi behar sexualitatearen garapena, egiaztatu den moduan, hautzarotik hasten baita.

Horrela, ezinbestekoa da afektibitatea eta sexualitatearen garapena injeretzia eta indarkeriatik gabe planteatzea, prebentzio-rako oinarri gisa. Gainera, arrisku-egoeren

kasuetan, indarkeria-kasuetan edo pornografiaren kontsumoak eragindako ondorio psikologiko eta sozialen kasuan, beharrezkoa da errealitate horri egokitutako arreta ematea.

Haurrekin eta nerabeekin esku hartzeko, haien bizitzako alderdi guztiak kontuan hartu behar dira; eta Internet eta pornografia, beren arriskuekin, haien bizitzaren zati dira.

## Gizartearentzako gomendioak

Herritarrak arduratsuak dira, eta indarkeriarik, desberdintasunik edo edozein motatako diskriminaziorik gabeko gizarte bat lortzea eta elkarrekin askatasunean bizitzea xede dituen gizarte-aldaketan parte hartu behar dute. Beraz, pertsona orok –helduek, adingabeek, irakasleek, osasunaren arlokoek eta abarrek– zalantzan jarri behar ditugu estereotipoetara, roletara eta edozein aurreiritzitaro garamatzaten eskemak.

Pertsona bakoitzaren ardura da, era berean, ikusten edo entzuten ditugun edukien eta informazioaren aurrean jarrera kritikoa izatea; horretarako, beharrezkoa da familien, komunitatearen eta erakundeen laguntza.

# BIBLIOGRAFIA

Ballester J., & Orte C. (2019). Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales. Universitat de les Illes Balears.

Carlos de la Cruz, s. y. (15 de febrero de 2019). Sí, tus hijos ven porno (y así les afecta). (E. País, Entrevistador) Obtenido de [https://elpais.com/elpais/2019/02/05/eps/1549359489\\_090898.html](https://elpais.com/elpais/2019/02/05/eps/1549359489_090898.html)

Castaño, C. (2008). La segunda brecha digital. Catedra.

Castells, M. (2009). Comunicación y poder. Madrid, España: Alianza Editorial.

Cobo, R. (2015). El cuerpo de las mujeres y la sobrecarga de sexualidad. Universidad de A Coruña.

Connell, R. (2005 Segunda Edición). Masculinidades. México D.C., México: PUEG. Universidad Nacional Autónoma de México.

Gavilán, M. A. (2018). La influencia del imaginario de la pornografía hegemónica en la construcción del deseo sexual masculino prostituyente: un análisis de la demanda de prostitución. Asparkia. Investigación feminista, 61-79.

INE. (2019). Encuesta sobre Equipamiento y Uso de las Tecnologías de la Información y Comunicación en los Hogares. España.

Linares, E. (2019). El iceberg digital Machista: análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se producen en la adolescencia de la CAE. Victoria-Gasteiz, España: Emakunde.

Martínez Benlloch, I., & Et al. (2008). Identidad de género y afectividad en la adolescencia. En F. d. Psicología., Anuario de Psicología (págs. 109-118). Universitat de Barcelona.

Organización Mundial de la Salud. (s.f.). Salud del adolescente. Desarrollo en la adolescencia. Obtenido de [https://www.who.int/maternal\\_child\\_adolescent/topics/adolescence/dev/es/](https://www.who.int/maternal_child_adolescent/topics/adolescence/dev/es/)

Pandora Mirabilia. (2019). Una guía para entender y prevenir la violencia machista online entre jóvenes, Ayuntamiento de Coslada, 2019. En enREDa-te. Ayuntamiento de Coslada.

Rovira, M. (2001). Los códigos de género en la adolescencia. En A. Tomé. - X. Rambla, Contra el sexismo. Coeducación y democracia en la escuela. Madrid, España: Síntesis, S.A.

Rubin, G. (noviembre de 1975). El tráfico de mujeres: nota sobre la economía política del sexo. (U. N. México, Ed.) Nueva antropología, VIII(030), 39-56.

Save the Children España. (2017). Respuestas fáciles a preguntas difíciles. Guía de educación afectivo-sexual para madres y padres.

Save the Children España. (2019). Violencia viral. Análisis de la violencia contra la infancia en el entorno digital.

Save the Children España. (2019). Violencia viral. Análisis de la violencia contra la infancia en el entorno digital.

Tubert, S. (2008). La construcción de la identidad sexual en la adolescencia. En el Instituto de la Mujer, Imaginario cultural, construcción de identidades de género y violencia: formación para la igualdad en la adolescencia. Madrid, España: Ministerio de Igualdad.

Zafra, r. 2. (2010). Un cuatro propio conectado. (Ciber) espacio y (auto) gestión del yo. Madrid, España: Fórcola Ediciones.



Save The Childrenek familiei zuzendutako gida bat garatu du, teknologia berrien erabilera arduratsuan hezteko; gure webguneko gurasoen eskolan aurkituko duzu gida.

<https://escuela.savethechildren.es>



